



**ERAIKINAREN DATUAK**

**Izena eta aldaerak:** Bordazar.

**Auzoa, udalerrria:** Zamalbide., Erreenteria.

**Dolarearen kokapena:** Baserriaren aurrean dagoen horma-harriz egindako eraikin exentua da toleara.

**Jabea:** Migel Zapiain.

---

**DOLAREAREN DATU HISTORIKOAK**

**Kronologia:** XX. mendekoa.

**Iraunaldia:** Urtero egiten da sagardoa, etxerako.

**Zenbait datu:** Gaur egundo toleara Usurbildik ekarri zuten 1973an. Lehen beste bat zuten. Eraikinak 150 bat urte ditu, eta toleara izateko eraiki zuten.

**Egungo erabilera:** Sagardogintza. Erle kaxak ere baditu tolearan.

**Kontserbazio egoera:** Ona.

---

**TIPOLOGIA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK****Dolare-prentsa:**

Bi solairutan antolatzen da toleara. Harrizko eskailera bidez eraikinaren albo batetik du sarbidea goiko solairuak. Albo batean du prentsa. Zurezko askaren erdian zutik jarritako burdinazko ardatza du, bakarra eta goiko muturra hariztatua duena. Zati horretan muntatua, eskuz eraginda ardatzean gora eta behera mugitzen den burua du, estutzeko mekanismoa eta zurezko urkaz osatua. Tamaina nabarmeneko zurezko aska soliba edo azpi sunbilek eusten dute. Behe solairutik ikus daitezke azpi sunbila horiek. Baita ardatza azpitik eusten duen altzairuzko perfilaz indartutako egurra eta torlojua ere. Askaren habe nagusien argia handia denez altzairuzko perfilez dago erdian zurkaiztua. Aurrealdetik du sarrera behe solairuak eta bertan dago upelategia.

**Dolarearen osagarriak:**

- Txorrotak, giltza edo trumukuak eta patsolak.
- Altzairu herdoilgaitzezko upela eta egurrezko bost barrika.
- Botilak.

**Argazkiak:** 35.01, 35.02, 35.03.

---

**GAKO-HITZAK**

Eskuzko trakzioa, matxaka, zurezko aska, Erreenteria, sagardoa egin, upela.

**OHARRAK**

Sagasti handia dute, eta etxean sagardoa egiteaz gain, asko saldu egiten dute.

**GALDETEGIA**

**Informatzailea:** Iñaki Zapiain, sagardogilea eta jabearen anaia.

**Datu bilketaren egilea:** A.Agirresarobe, J.Tellabi

**Datu bilketa data:** 2010eko martxoaren 18a

---